

AURKEZPENA

Luka, Itsaso, Garazi eta Julen gara. Urretxu-Zumarraga ikastolako Batxi 1eko ikasleak eta proiektu bat garatu dugu gizartean ikusi dugun arazo bati aurre egiteko eta jendearen bizitza hobetzeko.

Gaur egun, teknologia berriek indar handia hartu dute gure gizartean eta enpresetako azken aurrerapenak gai honen inguruan oso nabarmenak izan dira. Aurrerapen hauek ez daude gure gizarteko helduentzako pentsatuta eta horren ondorioz, adinekoak atzean gelditu dira eta ezin izan dute teknologien erritmoa jarraitu eta gaur egun ezin dituzte gauza asko egin (medikua ikusteko txanda hartu...). Gainera, bizi esperantza luzatzen ari denez, geroz eta adineko pertsona gehiago dago. Horregatik, sortu dugu gure proiektua: **hirugarren adineko pertsonengan pentsatuta, sortutako mugikor simple eta erabilerraza.**

Proiektu hau aurrera eramateko gure inspirazio iturri handiena inguruko eta gure etxeetako helduengandik atera dugu. Ikusi dugu, gizarte honetan mugikorra eta teknologiak geroz eta gauza gehiagotarako erabiliko direla eta adineko pertsonak mugikorrak erabiltzean geroz eta arazo gehiago izango dituztela, adibidez, orain, medikuarenera joateko txanda hartzeko APP batetik egin behar da eta adineko pertsona gehienak ez dira gai hau kontrolatzeko eta ulertzeko. Bestalde, garai honetan inguruko pertsonekin kontaktuan jarri ahal izateko mugikorrak erabiltzen dira eta adineko pertsonentzat hau erronka handi bat da. Batzuek ez dakite telefono dei bat nola hartzen den edo nola deitzen den, beste batzuek berriz, ez dakite mezu bat nola bidaltzen den edo mezu bati nola erantzuten zaion. Guretzako erraza den zerbait, beraiei zaila egiten zaie, horregatik, laguntzeko mugikor hau sortu dugu.